

“Helburua da Haitiko mendietan laborantxa atxikitzea”

Il y a tout juste un an, un séisme ravageait Haïti. L'association basque Konbit pour Haïti, née à cette occasion, rendra compte mardi prochain à Garazi du travail mené depuis un an avec les paysans de Cap Rouge, une zone rurale montagneuse du sud-est de l'île, et notamment du projet de conserverie auquel Patto Etcheverria a pris part. Le paysan de Jaxu a utilisé ses compétences dans la transformation porcine pour former sur place une vingtaine d'habitants.

Duela urtea, lur ikarak desmasia haundia sortzen zuen Haitin. Egun hortaz orroitzen zirea ?

Bai egunaz orroitzen niz. Desmasia ikaragarria izan zen. Berehala hunkia izan nintzan. Bi hilabeteren buruan, Konbit pour Haiti elkarteko partaide bat ikusi nuen. 1998an, bi urte pasatu zituen han eta harremanak bazituen oraino. Haitirat deitu zuen zer laguntza behar zuten galdegiteko. Hango agronomo batek erran zakon xerri transformazio-nea landu nahi zutela eta hori erakusten zuen norbait behar zutela konkretuki. Xedea dute jendea hango mendi gunean atxikitzea, ainitz Port-au-Princerat joaiten baitira, hiri haundirat, jendetzaren bi herenak biltzen ditu, gehienak miseria gorrian. Han dira ere bai laguntza humanitarioa, bai ta negozio eta trafikoak.

Xerri produkzioa da nagusi ?

Bai, xerriak badituzte denek. Hazkuntzaz nola atera zerbait ikasi nahi zuten. Lur ikararenga-



Patto eta Ger Etcheverria, Bixente Zozaya, Cap Rougeko bizitzaleekin.

tik, ainitz laguntza jin da Haitirat, janaria besteak beste, eta ondorioz gobernuak ez du gehiago ez esne ez irrisarik erosten laborarieri. Transformazio-anean abiatu nahi dute Cap Rougeko jendeek, ekoizpenak ONGko kideeri saltzeko, haiek baitute ahala. Humanitarioak trumilka badira han, 4x4 haundietan, besta gaitzak egiten dituzte, bizi ederra eramaiten dute.

Laguntza humanitarioak bi aurpegi baditu...

Bai segur. Gu joan gira bokalak hutsik eta nola bete erakustera. Bestek janaria ekartzen dute eta hortan geldit. Gure desmarta izan da lekuko jendeen beharrei ihardestea. Hango elkartekoek nahi dute jendeak atera ditzen berek. Han egin dugunak balio ukanen du. Crose lekuko elkar-tearekin lanean arizan gira. Arduradunetan da Gérald Mathurin, Haitiko laborantxako ministro egona eta, deus ez baitzen egiten ahal, gobernu bere gisa utzi zuen, proiektuak eramaitzeko jendeekin.

Xerri transformazioa erakusteko Haitin izan zira beraz...

Bai. Bixente Zozaya, Garaziko marexalak, Konbit pour Haitiko kideak, 15 egun han pasatzea galdegin zautan. Segidan baietz erran nuen, agorrilan joaita finkatuz baldintza gisa. Material guzia hementik eraman dugu (bokalak, haragi xehatzekoak, sterilisatzaile, etab).

Elkartearen proiektu nagusia kontserberia batén sortzea da...

Bai, xerriak transformatu. Xerri gizontzeko kulturarik ez da han.

Xerria hiltzen da beharra badelarik, 30 kg edo 100 kg izan. Transformatzeko gizontzera utzi behar dela erran diegu. Han xerriek gehienaz 130 kg egiten dute, beti kanpoan dira. Ez dute ez arto ez irrisarik jaten baina fruitu ainitz. Kabala guti da ta eremu frango, izigarriko haragi ona dute.

Hango jendeen formatzea zen zure misioa ?

Hogoi bat presuna formatu ditugu. Gure beha zauden izigarri. Gehienak emazteak ziren, zinezko borondatea badute, ainitz gauza manatzan, egiten eta bururaino eramaiten dituzte. Izigarriko nahikeria dute. Hiru talde egin ditugu, bakotzak bi xerri hiltzeko. Lehen taldean berean, dena konprenitzen zuen emazte dinamiko bat atera zauku. Formakuntza guziak eginarazi dazkogu eta azkena hari eramanazi dakogu. Izigarria zen, azkenean harek gintuen manatzan!

Proiektuaren gauzatzea, hango baldintzetan, desafioa da halare...

Alabainan ez dute ez elektrika-rik, eta beraz ez hotzik. Hastapenean problemak ukan ditugu preseski kontserbek ez baitute ihardoki. Cap Rougeko eskualdea Jacmel herritik 2 ornetan da, 4x4ez baizik ez da heltzen ahal. Jacmelen bada elektrika eta han plantatzen ahal litaite kontserberia baina mendian gauzatu nahi da, hango laborantxaren atxikitzeko. Leteria ttipi bat muntatu dute jadanik beraz nahi izanez geroz, manera izanen da.

Zertan dira gaurregun ?

Etude de marché delakoa egin behar zuten jakiteko jendeak zer nahi zuen, zer gustu preziatzen zuen. Ondotik transformazio gela ttipi bat idekiko da. Gauzak izigarri emeki egiten dira han. Biziki koordinatzaile bada bainan ez hainbeste obra.

Hemengo jendeak laguntza ekarri nahi balu, beharrendua bada beti ?

Bai bada. Baina Konbit pour Haiti eta ere Pompiers Sans Frontières-ek egin lan gaitzaren ondotik, guk ere gibelerat zerbait nahi ginuke. Proietua nola aitzinatzen den jakin nahi dugu. Diru gehiagoren igortzeko, han ere gauzek aintzinatu behar dute. Abendoaren 12ko gaudian, zer egin den ikusten ahalko da.

Pertsonalki nola bizi izan duzu esperientzia hori ?

Hango jendeeri esperantza emaita biziki inportanta da. Gutirekin bizi dira baina biziki alaiak dira, biziki untsa errezebituak izan gira. Euskal Herriko laborantxa bezala da han : laborantxa ttipiak, mozkin gutirekin. Ez zaut neke izan hango giroan sartzea eta erakustea zer egin behar zen. Berriz joaiteko ideian niz bixtan da, egun batez atelier hori sortzen bada, nola plantatu diren ikusteko.

Vache solidaire et parrainage scolaire

En plus du projet de conserverie, Konbit pour Haiti organise également le parrainage scolaire des élèves de l'école de Michineau, enclave très isolée et inaccessible en voiture qui compte 633 élèves et dont les besoins sont énormes. Autour des élèves du lycée Frantzèsenia, l'achat de deux vaches a également été financé. La vache achetée en Haïti est ainsi confiée à une famille qui n'avait pas les moyens de se la procurer et qui peut bénéficier des revenus du lait et des veaux des deux premières mise bas. Après la troisième mise bas, la vache est revendue avec son veau et l'argent de la vente est soit réinvesti dans une autre vache pour permettre à une autre famille de bénéficier du programme, soit rendu à l'investisseur suivant son choix. Plus d'infos sur: <http://konbit.free.fr/>